

TXOSTENA 2023



Hirukide

— Kide Ugariko Familien Elkartetako Euskadiko Federazioa —
Federación de Asociaciones de Familias Numerosas de Euskadi

TXOSTENA

2023



Hirukide

— Kide Ugariko Familien Elkartetako Euskadiko Federazioa —
Federación de Asociaciones de Familias Numerosas de Euskadi

2023ko Txostena

Argitaratzailea: Hirukide

Diseinua eta maketazioa: 2más2 Comunicación

Imprimaketa: Irudi

HIRUKIDE

Sofía Erreginaren etorbidea, 112

01015 Gasteiz

945 25 36 02

688 72 89 31

hirukide@hirukide.com

 **www.hirukide.com**

 **facebook.com/hirukide**

 **[@hirukide](https://twitter.com/hirukide)**

 **[@hirukide_euskadi](https://www.instagram.com/hirukide_euskadi)**

 **[@hirukide](https://www.linkedin.com/company/hirukide)**

 **[@HirukideFN](https://www.youtube.com/HirukideFN)**

AURKIBIDEA

1**ZUZENDARITZA
BATZORDEA _____ 06. orria****6****JARDUERAK _____ 14. orria****2****PRESIDENTEAREN
GUTUNA _____ 07. orria****7****BILERAK
ADMINISTRAZIOEKIN ETA
ALDERDI POLITIKOEKIN _ 20. orria****3****AURKEZPENA _____ 08. orria****8****HITZARMEN
PRIBATUAK _____ 26. orria****4****FAMILIA
BAZKIDEAK _____ 12. orria****9****HIRUKIDE
HEDABIDEETAN _____ 28. orria****5****HIRUGAZTE _____ 13. orria****10****KOMUNIKAZIOAK _____ 30. orria**



1 ZUZENDARITZA BATZORDEA

Hirukide elkarte hauek osatzen dute:



HIRUKIDE ARABA

PRESIDENTEA

Alberto Cobo Urkiola

PRESIDENTEORDEA

Belén Díaz de Sarralde

IDAZKARIA

Belén Balerdi Ozaeta

DIRUZAINA

Iñaki González Casi

BATZORDEKIDEA

Beatriz González García

BATZORDEKIDEA

Pilar Castelló Turell

BATZORDEKIDEA

Asier Caranca Olmos



HIRUKIDE BIZKAIA

PRESIDENTEA

Javier Velasco Jiménez

PRESIDENTEORDEA

Gabriel Gutiérrez Goiria

IDAZKARIA

Ignacio Corral de La Calle

DIRUZAINA

Adriana Bontigui Goldarecena

BATZORDEKIDEA

Garbiñe Cocó Sangroniz

BATZORDEKIDEA

Fernando Ortega Altuna

BATZORDEKIDEA

Susana Hernández Pérez



HIRUKIDE GIPUZKOA

PRESIDENTEA

Iñigo Abreu de Con

PRESIDENTEORDEA

María Gorostidi Pagola

IDAZKARIA

Gabriela Michel Zugazabeitia

DIRUZAINA

Gorka Álvarez San Martín

BATZORDEKIDEA

Cristina Sáenz Carrillo

BATZORDEKIDEA

Marta de Zárraga Rodríguez

BATZORDEKIDEA

Joseba Ostiategui María



HIRUKIDE

PRESIDENTEA

Iñigo Abreu de Con

IDAZKARIA

Alberto Cobo Urkiola

DIRUZAINA

Javier Velasco Jiménez

BATZORDEKIDEA

Gabriel Gutiérrez Goiria

BATZORDEKIDEA

Belén Díaz de Sarralde

BATZORDEKIDEA

María Gorostidi Pagola

2

PRESIDENTEAREN GUTUNA

Behin 2023. urtea amaituta, memoria honetan labur eta modu bisual batean azaldu nahi dugu zer lan egin dugun azken 12 hilabete bizi eta oparo hauetan, familia ugarien, gure bazkideen, gure erakundeen eta seme-alabak dituzten familien alde. Hasteko, esan behar dut Ignacio M^a de Guinearen lekukoa hartu dudala Hirukideko presidente gisa, hark karguan 17 urte emankor igaro ondoren. Ilusioz eta erantzukizunez onartzen dudana erronka da, jakinik desafio handiak ditugula eta oraindik ere zeregin garrantzitsua dugula gure gizartean.

Hilabete hauetan, gure zeregin nagusia izan da aholku eta laguntza ematea seme-alabak dituzten familiei eta, bereziki, familia ugariari, harreman instituzional eta komertzialak sustatzea, aukera berdintasuna xede duten formakuntza eta aisialdi jarduerak antolatzea, eta, azkenik, familiek eguneroko bizitzan dituzten kargak arintzea.

Gure jarduerari eta zerbitzuei dagokienez, horietako batzuk sendotu egin ditugu, hainbat ekintzaren bidez; adibidez, Hirugazte, 2022an abian jarri zen gazteentzako arlo espezifikoa. Era berean, nabarmentzekoak dira familia jarduerak: hala nola deskontu kanpainak, lehiaketak, familia txangoak edo formakuntza alorrekoak. Horiei amaiera emateko, batzar bat egin genuen udazkenean Bilbon, arrakasta handiz, lau urtez halakorik egin gabe egon ondoren, pandemiagatik.

Arlo instituzional eta sozialean, 2023. urtea nabarmendu da Euskadin izan den jaiotza kopururik txikienagatik, erregistroak daudenetik, 14 urtean % 36ko jaitzierarekin. Eusko Jaurlaritzak neurri berriak hartu ditu joera kezkarri horri erantzuteko; besteak beste, seme-alaben jaiotzagatiko laguntzak handitzea eta Haurreskolak doakoak izatea. Hirukidetik, esker onez jaso ditugu egitasmo horiek, baina adierazi dugu ere ez direla nahikoak izango joera demografiko negatiboa alderantzizatzeko Euskadin, ez eta jada seme-alabak dituzten familien eskaerei erantzuteko ere.



Era berean, alor politiko eta instituzionaleko gure lanean eragina izan du ere Eskubide Sozialen, Kontsumoaren eta 2030 Agendaren Ministerioak Familien Lege Proiektua onartzen saiatu izanak. Lege proiektu horrek ezabatu egin nahi zituen Familia Ugarien kontzeptua eta titulu ofiziala, eta gure kolektiboa sartu nahi zuen kontzeptu zabalago baten barruan: "Hazkuntzan laguntza handiagoa behar duten familiak". Hala ere, hauteskundeak udara aurreratzean eta, ondorioz, Gorteak desegitean, geldiarazi egin ziren abian ziren tramitazio parlamentarioak; besteak beste, arau berriarena. Nolanahi ere, jakin badakigu 2024an berriro ekingo diotela lege proiektuari, eta lanean ari gara gure kolektiboari eragin ez diezaion.

Enpresek, saltokiek eta erakundeek gu babesten jarraitu dute, akordioen, deskontuen eta jarduera eta ekitaldietako kolaborazioen bidez. Horiei esker, kapaz izan gara familiei ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko erraztasunak ematen jarraitzeko (1.300 Hirudenda ditugu jada), eta erakunde eta enpresa horiek babestutako jarduerak eskaintzeko, aisiaren, kulturaren eta formakuntzaren alorrean.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet Hirukideko familia guztiei gure elkartearen jartzen duten konfiantzagatik, bai eta laguntzen diguten erakunde eta entitate guztiei ere, haien babes ordainezinatik.

Ignacio Abreu de Con
Presidente de Hirukide



3 AURKEZPENA

2023 Kopurutan

38.400

"Hirukide berriak"
aldizkariaren irakurleak

14.423

Newslettterraren
harpidedunak

108

Agerpenak
hedabideetan

35

Bilerak entitate
pribatuekin

28

Parte-hartzea organismo
eta ekitaldietan

22

Errekurtsoak, erreklamazioak...

1.246

Artaturiko
kontsultak

150

Bazkideentzako
deskonto berriak

26

Antolatutako
jarduerak

10

Hirugazte
jarduerak

86

Bilerak
erakunde eta
alderdiekin

Hirukide irabazi-asmorik gabeko erakundea da, oro har seme-alabak dituzten familien eskubideak eta bereziki kide ugariak babestu nahi dituena, bizitza politiko, instituzional, sozial, mediatiko eta enpresarialeko arlo guztietan.

1999an sortu zenetik, erakunde eta administrazioen artean seme-alabak dituzten familien premiei buruzko kontzientzia handiagoa bultzatu du Hirukidek, besteak beste etxebizitzaren, fiskalitatearen eta hezkuntzaren arloetan hobekuntzak lortzea helburu. Hori guztia elkarteko bazkide diren familiei hainbat zerbitzu eta jardura eskainiz.

Federazioa Eusko Jaurlaritzak 2003an izendatu zuen Herri Onurako Erakunde, eta Euskadiko hiru lurraldeetako elkarteek osatzen dute: **Hirukide Araba**, **Hirukide Bizkaia** eta **Hirukide Gipuzkoa**. Gasteizko egoitza nagusian, Euskadi osoari estaldura ematen dioten zazpi profesional ari dira lanean, eta Bizkaitik eta Gipuzkoatik federazioaren sustatzaile banak laguntzen diete.



ZERGATIK HIRUKIDE

Hirukideren **misioa** da oro har seme-alabak dituzten familiak eta bereziki kide ugarikoak babestea eta sustatzea: haien eskubideak babestea eta seme-alabak dituzten familiekin adiskidetsu eta inklusiboagoa izango den gizartea ahalbidetzeko kultura-aldaketa sortzea.

Ikuspegia da arlo publikoan zein pribatuan lan egitea, familia horiek egiten duten gizarte-ekarpenak aitortpen osoa lor dezan eta, ondorioz, ekonomia-, gizarte- eta lanesparruetan babestuta egon daitezten, elkarteak familien eta herri-administrazioen arteko erreferentzia eta solaskidea izanik. Era berean, jarduera eta zerbitzu guztiak kide ugariko familien bizi-kalitatea hobetzera bideratuta daude, alderdi guztietan.

Hauek dira elkartearen **balioak**:

- **Integritatea** elkartearen kudeaketan eta prozesuen gardentasuna.
- **Demokrazia** bai gobernatzeko bai erabakiak hartzeko.
- Eragile ekonomiko, sozial eta politikoeikiko **independentzia eta ekidistantzia**.
- Kide guztien arteko **elkartasuna**, elkarlana eta elkarrekiko laguntza sustatuta.
- Egindako lanaren **bikaintasuna**, familientzako zerbitzu hobea lortzeko.



TXARTEL DIGITALA

Hirukidek bazkide-txartel digitala du, **familia bazkideentzat egiaztagiri gisa balio duena**. Txartela pertsonala eta besterenezina da, eta +Familia Planaren barruan (Hirukideren deskontu-plana) familia bazkideei dagozkien abantailak eskuratzeko balio du.

Estatuko kide ugariko familien elkarte guztietarako txartel bateratua da, eta, horri esker, beste autonomia-erkidego batzuetako kide ugariko familien gainerako elkarteek lortutako deskontu guztien onuradun izan daitezke Hirukideko familiak ere.













KIDE UGARIKO FAMILIENTZAKO ZERBITZUAK






- **Aholkularitza** eta informazio osoa kide ugariako familia-izaerarekin loturiko laguntza, eskubide edo abantailen eta abarren gaineko zalantza guztiak argitzeko.
- **Informazio**-bidalketa gure hileko newsletteraren, hiruhileko aldizkariaren eta, ohikotasunez, elkartearen webgunearen, WhatsAppeko kanalaren eta gure sare sozialen bidez: Facebook, Twitter eta Instagram.
- **Jardueren antolaketa** urte osoan: lehiaketak, zozketak eta online jokoak, beste familia batzuekin une ludikoak partekatzeko.
- **Prestakuntza**, gurasotasun positiboan oinarrituriko online hitzaldien bidez familientzat interesgarriak diren hainbat gai jorratzeko, gizarte osoari irekita.
- **Boluntariotza eta solidaritatea:** Boluntarioen poltsa bat eskaintzen da, interesa duten pertsonak ekitaldietan, jardueretan edo komunikabideetan parte har dezaten. Eta lana, haurrentzako materiala, ibilgailua eta abar bilatzen edo eskaintzen dutenentzat, familia arteko Eskari-Eskaitza zerbitzua dugu.
- **+Familia Plana:** Hirukidek 1.300 akordio baino gehiago lortu ditu enpresa pribatuekin; horien arabera, prezio edo baldintza bereziak eskaintzen dizkiete kide ugariako familiei, hainbat sektoretan (elikadura, hezkuntza, erregaiak, arropa, aisialdia, osasuna, ostalaritza...), Hirudenda izenekoetan.
- **Hirugazte:** Hirukideko gazteen komunitateari (15-25 urte) berariazko jarduera, ekitaldi, prestakuntza eta informazioa eskaintzen zaizkio.

FAMILIA UGARI baldintzaren onarpenerako, familia-unitatea honela eratuta egon behar izango du:

FAMILIA UGARI OROKORRA



FAMILIA UGARI BEREZIA





4 FAMILIA BAZKIDEAK


Hirukidek kide ugariko 8.127 familia bazkiderekin bukatu zuen 2023a (43.000 bazkide inguru); Euskadin titulu ofiziala duten familien ia % 23 dira. Horietatik % 90 kategoria orokorreko familiak dira (hiru edo

lau semealaba, edo bi, alarguna izanez gero, seme-alabetakoren batek desgaitua baldin badu edo beste berezitasunen bat baldin badago), eta % 10 kategoria berezikoak (bost seme-alaba edo gehiago).

15.574
Kide Ugariko Familia
3.366
bazkide

13.986
Kide Ugariko Familia
3.343
asociadas

6.517
Kide Ugariko Familia
1.418
bazkide



Euskadin
36.077
kide ugariko familia

Hirukideko BAZKIDEAK
8.127

5 HIRUGAZTE

2023an, sendotu egin ditugu Hirukideko gazteen komunitatearentzako zerbitzuak, martxan jarri genituenak 2022. urtearen erdialdean. Orduz geroztik, arreta berezia jartzen dugu 15-25 urteko bazkideengan, haientzat bereziki pentsatutako deskontu, ekintza eta jarduerekin.

Kolektibo horri informazioa eman eta harekin harremanetan jartzeko, Instagram@hirugazte kontua erabiltzen dugu bereziki; gaur egun 1.000 gaztek baino gehiagok jarraitzen dute. Kontu horrekin batera, web orri informatibo bat dugu (www.hirugazte.com), gure jardueren berri emateko; besteak beste, gazteentzat ditugun 150 deskontu baino gehiago biltzen ditu.

2023an, jarduera ugari egin ditugu, horietako batzuk Eusko Jaurlaritzaren lankidetzari esker:

Hiru gazte



FORMAKUNTZA: ikasketa teknikei buruzko ikastaroak, euskaraz eta gaztelaniaz, eta autoezagutzari eta formakuntza akademiko eta laboral egokiari buruzko online hitzaldiak.



AISIA: plan berezi eta paraleloa Familia Ugarien X. Euskal Batzarrean (Bilbo), Sendaviva parkeko Familia Jardunaldian eta Gabonetako HiruPin-ean. Halaber, Kahoot saio bat antolatu genuen martxoko arratsalde batean.



ZOZKETAK ETA LEHIAKETAK: erosketak txartelen, zinema eta bolatokirako sarreren... zozketak, Gabonetako argazki lehiaketa eta reel lehiaketa bat udan.



BOLUNTARIOTZA: akordioak ditugu ezintasunen, inklusioaren... inguruko hainbat elkarte eta fundazioarekin, Hirugazteek boluntario lana egin dezaten oporraldietan.



GUTUN BAT ZURETZAT: harremanetan jarri ditugu ikastetxeak eta zaharren egoitzak, eta mila gaztek baino gehiagok gutun pertsonalizatuak idatzi dizkiete adineko pertsoneri (gutun asko eskura entregatuak).





6 JARDUERAK

CAMPAÑA DE MUNICIPIOS

2023an, bederatzi udalerritarra jo dugu guztira, Hirukideren zerbitzuak eta jarduerak aurkeztera eta familia ugarietara gure kolektiboaren eskubideen berri ematera.

Zehazki, udalerrri hauetan izan ginen: Arrasate, Azpeitia, Barakaldo, Bermeo, Errenteria, Getxo, Hernani, Mungia eta Tolosa. Herri guztietan, arratsaldeko talde aurkezpenaz gain, informazio gune bat izan genuen egun osoan, informazioa emateko familiei eta haien zalantzak argitzeko. Eskerrak eman nahi dizkiegu udal guztiei, lokal bat uzteagatik eta Eusko Jaurlaritzaren lankidetzagatik jarduera hori egiteko.



AISIA IRTEERAK ETA FAMILIA JARDUERAK

Otsailean eta urrian, Kahoot familiarraren beste partida bana antolatu genuen aurretik izena eman zuten Hirukideko familia guztientzat, euskaraz eta gaztelaniaz aldi berean. Agerian utzi zituzten beren oroimena, ezagutzak eta trebetasuna, familia osoarentzako jolas atsegina eta bizi batean.

Martxoaren 19an, udaberriko irteera familiarra antolatu genuen, eta Aitaren eguna ospatu genuen Hirukideko familia talde handi batekin. Golfean jokatzeko ikasi eta mendi txangoa egin zuten Izkiko Parke Naturelean barrena.

Ekainaren 17an, Familia Jardunaldia egin genuen berriro Sendaviva jolas, natura eta abentura parkean. Ehunka familia bertaratu ziren, antolatu genituen sei autobusetan eta Euskadiko hainbat udalerritatik irten ziren ehun auto baino gehiagotan. Eguna ederra igaro genuen, familian, 800 animalia baino gehiago eta adin guztientzako 30 atrakzio dituen parkean.

Urtea amaitzeko, abenduaren 16an, gure HiruPin tradizionalaz gozatu genuen Gorbeia Merkataritza Zentroan. Gipuzkoan eta Bizkaian, familiarentzako zinema saio bat antolatu genuen, prezio egokian, bi pelikula hautatzeko aukera emanaz bi lurraldeetako zinema aretoetan. Azkenik, elkarteko familiei eskaini genien ere Barakaldoko BECeke Gabonetako Haur Parkera joateko eguna hautatzeko aukera.





LEHIAKETAK ETA ZOZKETAK

Udan, Hirukideren 8. Argazki Lehiaketa antolatu genuen, "Seme-alabek pertsona hobek egiten gaituzte" lelopean. Hamarnaka argazki iritsi zitzaizkigun, eta baldintza zen familiako kide guztiak edo batzuk eguneroko bizitzako hainbat une eta egoeratan (sinpatikoak, dibertigarriak, maitagarriak...) agertzea. Gabonak baino lehen, Krismen Haur Lehiaketaren 18. edizioa egin genuen, hiru kategoriatan banatuta.

Gainera, urtean zehar hainbat zozketa egin ditugu gure enpresa laguntzaileei esker, nabarmentzekoak izanik EROSKI Clubek hiru hilean behin egiten dituen zozketak (Hirukideko familia guztiek parte hartzen dute), gure sare sozialetako jarraitzaileentzako zozketak eta kultura eta familia arloko ikuskizun eta jardueretarako zozketak. Azkenik, Gabonetako saskien betiko zozketa egin genuen: 150 euro sartu genituen hiru familia irabazleen EROSKI Club txartelean.



HIRUKIDEREN 10. BATZARRA

Irailaren 30ean, gure 10. Batzarra egin genuen Bilboko Euskalduna Jauregian, eta Euskadi osoko familiak bertaratu ziren. "Familia, eskolarik onena" lelopean, 500 lagun izan ziren batzarrean: helduak, gazteak eta haurrak. Egun ahaztezina izan zen familia guztientzat, eta bereziki nabarmendu zituzten goizeko saioan bizitako emozioak eta arratsaldeko familia jarduera eta jolasetan sortutako giro aparta.

Familia Ugarien X. Sarien banaketa izan zen batzarreko unerik hunkigarriena, eta sariak izan ziren Jaime Lafita familia ugariko aita eta Dale CandELA Fundazioaren presidente eta sustatzailearentzat, eta 17 urtez Hirukideko presidente izandako Ignacio M^a de Guinearentzat (batzarra baino hilabete gutxi batzuk lehenago arte izan zen kargu horretan).

Mar Romera, Pedro G^a Aguado eta Jorge Ortiz de Urtaran arduratu ziren hitzaldiez, eta azken biek saio bat egin zuten aparte batzarrean izan ziren Hirugazteko 100 gazteentzat. Zaintza zerbitzua antolatu zen txikientzat, eta bertaratutako guztiek hainbat plan egin ahal izan zituzten familian arratsaldean: hala nola San Mames edo Itsas Museoa bisitatzea, eta txango bat itsasontziz Bilboko itsasadarrean.

Eusko Jaurlaritzaren laguntza eskertzen dugu.



HIRUDENDEN KANPAINAK

Urte osoan zehar, hainbat kanpaina antolatu ditugu berriro elkarteko familientzat eta bultzada eman diogu Hirudendetako kontsumoari (+Familia Planari atxikitako erakundeak eta saltokiak). Horrela, "H+F" kanpaina antolatu genuen, Hirukideko familia ugari gehiago bazkidetzea lortu zuten Hirudendak identifikatzeko.

Gainera, Hirubonuen kanpaina egin dugu berriro, eskolarako itzulera eta Gabonetan. 20 edo 40 euroko bonuak dira: familiek 15 edo 30 euro ordaintzen dituzte eta Hirukidek gainerakoa jartzen du. Nobedade gisa, aurtengo kanpainetan, aukera eman zaie familiei eta Hirudendei Hirubonu bat edo haren zati bat emateko elkarteko familia zaurgarrienei. Gainera, Hirukidek bikoiztu egin du dohaintzan emandako Hirubonu guztien zenbatekoa eta familia bazkide eskatzaileen artean banatu dira.

SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK

Hainbat sentsibilizazio kanpaina egin ditugu urtean zehar sare sozialetan, familiarekin eta familiako kideekin lotutako egutegiko egun seinalatuen inguruan.

Horrela, Aitaren, Amaren, Familiaren eta Haurren egunetan, mezu positiboak zabandu ditugu Instagram, Facebook eta Youtuben, bai Hirukideko gure kontuetatik, bai Eusko Jaurlaritzak finantzaturako kanpainen bidez (eskerrak ematen dizkiogu laguntzeagatik).

CAMPAÑA KANPAINA

Hiru Bonos

SOLIDARIO* 2023

¡Conseguid ya vuestro Hirubono con 5 o 10 euros de regalo!

FAMILIAS DONANTES
Durante esta campaña podéis DONAR un Hirubono a parte del mismo a familias más necesitadas de Hirukide.

2€ 5€ 20€

Familias Categoría General
Podéis adquirir uno de los dos bonos

Familias Categoría Especial
Podéis adquirir los dos:

Bono	Coste
20€	15€
40€	30€

FAMILIAS BENEFICIARIAS
Las familias de Hirukide con menor seguro estudiantil podrán acceder a sus Hirubonos de forma gratuita. *Un requisito de acceso es el QR.

HIRUDENDAS
Las Hirudendas autorizadas podrán colaborar DONANDO parte del Hirubono.

Además, desde Hirukide duplicaremos el importe de todos los Hirubonos donados y los repartiremos entre las familias más vulnerables. ¿A quién hace la fuerza!

Plazo: consultar antes del 30 septiembre. Bonos acumulativos al día, o cupagos que realice la Hirudenda.

Día Internacional de la FAMILIA

15 de mayo

Zer da zuretzat zure familia?

A las que nos inspiran,

AMEI omenaldia beren EGUNEAN

TAILERRAK ETA FORMAKUNTZA IKASTAROAK

Hainbat formakuntza ikastaro eta tailer antolatu ditugu online, helduentzat, gazteentzat eta haurrentzat. Pazko Astean antolatu genituen Metaikaskuntzari buruzko ikastaro bat eta Hizkuntzari buruzko beste bat, USEa prestatzeko; maiatzean eta irailean, “Nola prestatu GRALaren defentsa eta ahozko aurkezpenak” izeneko tailerra. Udan eta Gabonetan, Ikasketa Teknikei buruzko ikastaroa eskaini genuen; uztailean eta irailean, “(Des)konekta” tailerra; azkenik, urrian, “Begiratu, pentsatu, konektatu ongizate digitalarekin” tailerra.



F+F KANPAINA

Aurten, “Familia, bazkidetu beste familia bat” kanpaina bat baino gehiago egin dugu, helburua izanik laguntza eskatzea familiei familia gehiago erakartzeko elkartera.

Epe laburragoetan egin ditugu, eta familia bazkideen eta hainbat enpresa kolaboratzailearen laguntza ere izan dugu; hala nola Lacturale, Kaiku eta Angulas Aguinaga.



7 LANKIDETZA ADMINISTRAZIOEKIN ETA ALDERDI POLITIKOEKIN

Hirukidek familien bozeramailetza lan handia egiten du administrazioen eta erakundeen aurrean, eta modu aktiboan kolaboratzen du haiekin. Horren erakusgarri dira urtean zehar egiten diren bilerak:

EUSKO JAURLARITZA

Nerea Melgosa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua.

Miren Irune Muguruza, Familia eta Haurtzaroko zuzendaria.

Jon Iñaki Betolaza, Farmaziako zuzendaria, eta **Leire Braceras**, Antolakuntza eta Hornidurako gerentea.

Jonan Fernandez, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusia, eta **Asier Aranbarri**, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria.





ALDUNDIA ETA BATZAR NAGUSIAK

Gorka Urtaran, Arabako Gizarte Politiketako foru diputatua.

Jesus Lekerikabeaskoa, EAJ-PNVren bozeramailea Bizkaiko Batzar Nagusietan.

Juan Otermin, PSE-EEren bozeramailea Bizkaiko Batzar Nagusietan.

Rafaela Romero, Gipuzkoako Mugikortasun eta Lurralde Antolakuntzako foru diputatua.

Teresa Laespada, Bizkaiko Enplegu, Gizarte Kohe- sio eta berdintasuneko foru diputatua, eta **Oscar Seco**, Gizarteratzeko zuzendari nagusia.

UDALAK

Amaia Azkue, Berastegiko alkatea.

Guruzne Carrasson, Sopolako alkatea.

Aizpea Otaegi, Errenteriako alkatea.

Iñigo Hernando, Galdakaoko alkatea, eta **Alberto Ealo**, Ogasun zinegotzia.

Orlan Isoird, Berrizko alkatea.

Olga Barrio, Bilboko Ogasun zuzendaria.

Leire Arana, Zarauzko Turismo zinegotzia.



UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK

Maiatzeko foru eta udal hauteskundeen aurretik, bilerak egin genituen EAEko alderdi nagusietako hiru hiriburuetarako eta aldundietako hautagaiekin.

EAJ-PNV: Ana Furundarena, Eider Mendoza, Eneko Goia, Ramiro González, Beatriz Artolazabal, Koldo Goioaga eta Mireia Elkoroiribe.

EH Bildu: Maddalen Iriarte, Nerea Kortajarena, Juan Karlos Izagirre, Eva Lopez de Arroyabe, Rocio Vitero eta Nerea Martínez.

PSE-EE: Cristina Gonzalez, Maider Etxebarria, Marisol Garmendia, José Ignacio Asensio, Susana G^a Chueca, Nora Abete eta Goyo Zurro.

PP: Borja Corominas, Mikel Lezama, Marta Alaña, Blanca Lacunza, Esther Martínez eta Raquel Gonzalez.

Elkarrekin Podemos: Miren Echeveste, Marivi Eizagirre, David Rodríguez, Gema Zubiaurre, Eneritz de Madariaga eta Alba García.



BESTE ERAKUNDE BATZUK

Manuel Lezertua, Arartekoa, eta **Elena Ayarza**,
Hartzaroaren bulegoko arduraduna.

Iñigo Barandiaran, EAJ-PNVko diputatua Kongresuan.

Enrique Monasterio, EEEko Garapen eta
Berrikuntzako zuzendaria.





HIRUKIDEK PARTE HARTU DU/LAGUNDU DU

2022an, elkartea hainbat ekitaldi eta jardunalditan izan zen; nabarmengarrienak:

- “Kontziliaziorako bideak irekitzen” kongresua, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikako Sailak antolatua.
- “WORKinLAN summit” topaketa, Euskadiko Enpleguaren Liburu Zuria aurkezteko.
- Minbiziaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldia Araban.
- Etorkizuna Eraikiz foroa, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EHUk sustatua.
- Euskadiko familia turismoari buruzko II. Jardunaldia, Basquetourrek antolatua.
- Sendilagun-en aurkezpena, Gasteizko Elizbarrutiko Familia Bitartekotzako Zerbitzua.
- FEFNren Ezohiko Batzar Nagusia.
- 1205 - Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Eguna, Sareen Sarea.
- Gasteizko Udaleko HEI (Herritarren Eskola Irekia) talde eragilea.
- GJHen aldeko Euskal Aliantza eratzea.
- 2022-2036 Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialari buruzko urteko txostena.
- Lankidetz hitzarmena Espainiako Joko Jasangarriaren Elkartearekin.



HIRUKIDEK PARTE HARTZEN DU

Hirukideren zereginen artean, oro har seme-alabak dituzten familien eta bereziki kide ugarikoen ordezkari aritzea dago, aldizkako bileretan modu aktiboan parte hartzen duen foro, kontseilu eta erakundetan:

EUSKO JAURLARITZA

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua.
- Familiaren Euskal Kontseilua.
- Elkarrizketa Zibilerako Mahaia.
- Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko Haur, Nerabe eta Gazteen Batzordea.

BESTE ERAKUNDE EDO ENTITATE BATZUETAN:

- Arabako Foru Aldundiko Haur, Gazte eta Familien Kontseilu Sektoriala.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Arabako Foru Kontseilua.
- Donostiako Udaleko Gizarte Kontseilua.
- Sareen Sarea, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeen elkarte.
- Kide Ugariko Familien Espainiako Federazioa, FEFN.



8 AKORDIO PRIBATUAK



Aurten, Hirudenda gehiago sartu dira gure +Familia Planean eta 1.300 entitate eta saltoki baino gehiago daude jada gure Deskontu Gidan. Zehazki, 2023an, 150 Hirudenda gehiagok bat egin dute egitasmoarekin, eta konpromisoa hartu dute Hirukideko familia ugarietarako laguntzeko deskontu bereziekin.

Deskontuen Gida helarazten zaie Hirukideko familia ugari guztiei, erakunde laguntzaileei eta urtean zehar bazkietzen diren familiei. Familiek azkar batean eskura dezakete gure gidan jasotako deskontuei eta erakunde laguntzaileei buruzko informazioa, gure webguneko online bilatzailearen bidez.

Familiei eta Hirudendei laguntzeko, aurten ere jarraitu dugu denda horietan salerosketa dinamizatze gure egitasmoekin, eta Hirubonuen bi kanpaina egin ditugu.

Kontsultatu hemen
egungo deskontuak



+ **150**
Hirudenda
gehiago

**2023an lankidetzak
akordioak egin edo
hobetu ditugun erakunde
edo saltokietako batzuk:**





9 HIRUKIDE HEDABIDEETAN

Bere misioaren eta helburuen parte gisa, Hirukidek bere gain hartzen du Euskadiko familia ugarien eta, kasu askotan, seme-alabak dituzten familia guztien bozeramaile rola. Horrela, familia horien beharren eta eskaeren berri ematen diogu iritziz publikoari, eta jarrera proaktibo bat dugu eragiten dieten arazo eta gaien aurrean, komunikatuak eta prentsa oharrak bidalita.

2023an, bitartekari lanetan jarraitu dugu hedabideen aurrean, besteak beste fiskalitatearekin, kontziliazioarekin eta familia politikarekin lotutako gaietan. Gainera, arreta jarri dugu berriz Euskadik duen desafio demografiko handian, beste urtebetez larriagotu egin den arazoa, jaiotza kopuruaren beste jaitziera batekin.

Urtean zehar, 108 aldiz agertu edo aipatu gaituzte hedabideetan (online nahiz offline), elkarrizketetan, artikuluetan eta erreportajeetan, tokiko eta EAE osorako hedabideetan nagusiki.



108
agerraldi



10 KOMUNIKAZIOAK

Elkartearen jarduerak eta ekitaldiak ezagutarazteaz gain, Hirukidek familia ugarientzako informazio eta aholkularitza lana egiten du, eta argibideak ematen dizkie haien eskubideei eta eskura ditzaketen laguntzei buruz. Zerbitzu hau hainbat kanalen bidez eskaintzen dugu: aurrez aurre, telefono

deien eta mezu elektronikoaren bidez, gure web orriko inprimakiaren eta sare sozialetako plataformen bidez, bai eta gure aldizkariaren eta informazio buletinaren bidez ere. Gainera, puntualki, datozen egunetan ekitaldiren bat egitera goazenean, horren berri ematen diegu bazkideei SMS bidez.



WEB ORRIA

Gure web orriak baliabide nagusi izaten jarraitzen du familia ugariak beren eskubideei eta onurei buruz informatuta edukitzeko eta gure jarduera eta egitasmo legegileei buruzko azken berriak zabaltzeko. Aurten, 133.000 bisita baino gehiago izan ditu; 300 saio egunean, batez beste. Webgunearen 25 ataletatik, gehien kontsultatzen direnak dira deskontuei, albiste garrantzitsuei, bazkidetzeko moduari eta gure jardueri buruzko informazioa ematen dutenak.

Webgunea etengabe eguneratzen da, euskaraz zein gaztelaniaz, eta aurten 160 argitalpen eta eguneratze berri egin ditugu. Sarrera horietako asko dira beste hedabide batzuen bidez (newslettera eta Hirukideren sare sozialak, besteak beste) zabaltzen dugun informazioaren osagarri.



108.308 bisita urtean
+9.025 bisita hilean
297 bisita egunean





SARE SOZIALAK

Sare sozialetako plataformak informazioa zabaltzeko baliabide dinamikoak dira, eta aukera ematen digute partekatzeko elkartearen azken berriak eta nobedade legegileak, edukia egokituta sare sozial bakoitzera. Instagram eta Facebook erabiltzen ditugu gure jardueren, lehiaketen eta zozketen berri emateko, bai eta

+Familia Planarekin bat egin duten Hirudenda berrien berri emateko ere. Aldiz, Twitter erabiltzen dugu izaera instituzionalagoa duten komunikazioetarako. Gure Instagram kontuak hazkunde nabarmena izan du (% 50etik gorako hazkundera jarraitzaileen kopuruan), eta funtsezko plataforma bihurtu da Hirukiderentzat.

 **141.526**
jarraitzaile

 **627** ↑ +%7
jarraitzaile

 **2.484** ↑ +%32
jarraitzaile

 **12.107** ↑ +%3,5
harpidedun



NEWSLETTERRA

Azkartasunagatik eta eraginkortasunagatik, hauxe da elkarteak gehien erabiltzen duen komunikazio kanala familiei gai garrantzitsuei buruzko informazioa emateko. 2023an, 148 newsletter baino gehiago bidali ditugu, gai edo ekitaldi espezifikoiei buruzkoak gehienak.

Gainera, hileko newsletterra erabiltzen dugu Hirukideren azken nobedadeen eta ekitaldien berri emateko, eta bidaltzen zaie bai Hirukideko familiei bai laguntzen diguten entitate eta erakundeei. Newsletter guztiak elebidunak direnez, hizkuntza aukera dezakete Euskadi osoko 14.000 harpidedunek baino gehiagok.



+14.000
harpidedun

HIRUKIDE ALBISTEAK

Hiru hilean behin 10.500 ale baino gehiago argitaratuta eta 39.600 irakurle baino gehiagorekin, aldizkariaren helburu nagusia da informazioa ematea gure elkarteko familiei, gure kolektiboarentzat garrantzitsuenak diren berrikuntzei buruz, seme-alabak dituzten familientzat interesgarriak diren gaiak lantzeaz gain. Elkarteko familiei eta familia ugariak dituzten pertsona ezagunei eginiko elkarrizketen bidez, gure kolektiboaren irudi fidagarri eta zehatza eskaintzen du aldizkariak.

Atal baloratuenak izaten jarraitzen dute gure jarduera eta ekitaldiei, deskontu berriei eta laguntzen inguruko azken nobedadeei buruzko informazioa ematen duten atalek, eta familiei edo pertsona ezagunei eginiko elkarrizketek. Aurten elkarrizketatu ditugu, besteak beste, Pedro García Aguado eta Mar Romera, gure X. Batzarreko hizlariak, eta Rosa Carabel, EROSKI taldeko CEOa, eta gure irakurleekin partekatu dituzte beren esperientziak.



+10.500 ale
+39.600 irakurle

Eskerrak eman nahi dizkiegu Hirukideri 2023ko bere jarduera eta zerbitzu guztiak garatzen lagundu dioten babesle eta kolaboratzaile guztei.

BABESLEAK

Publikoak:



Pribatuak:



LAGUNTZAILEAK

